

! expoesía

Bienal de Poesía Experimental de Euskadi . 2008

Euskal Herriko Poesia Esperimentalaren Biurtekoa

"Euskal Herriko Poesia Esperimentalaren biurtekoa" izenburupean aurkezten dugun proposamenak jarri du bere arreta poesia esperimentala deritzon arloan: poesia ikuskaria, bisiboa, konkretua, objektuala, berbofonikoa, zibernetikoa, espaziala, performantikoa edo ekimenezkoa.

Biurteko honen antolakuntzaren bidez poetei eta sortzaileei ate berri bat ireki, adierazpen poetikoaren duintasuna aldarrikatu eta adierazpen artistikoa, sorkuntza edota poesia berbera hiritarrei hurbildu nahi dizkiegu.

Poesia arte guztietako sustraietan dagoela uste dugu eta gaur egun ere badaudela edozein sistematizazioari ihesi ibili diren hainbat sormen prozesuak, honako bi zutabe nagusien barruan itsatsiak agertu zaizkigunak: Arte Ederretan eta Letra Ederretan. Honek guztiak zenbait egilen lanetan, argitarapen espezializatuetan edota gutxiengo -mugatuak direlako- edizioetan, ohiz kanpokoak, deserosoak edota konplexuak diren ereduak arakatzera bultzatu gaitu. Aipatutako ekimenak, bestalde, sortzaileen kemenari esker gauzatu direla aitortu behar dugu.

Horregatik, korronteen, jardueren eta egileen arteko topaketa hau bideratu eta jendeurrean jarri nahi dugu. Era berean, onartzeko prest gauden baino aberatsagoa den gure errealitate kulturalari eta artistikoari buriszko eztabaidak eta ikerketak bultzatuko ditugu.

Ondorioz, topaketa honen bidez, kasu batzuetan errekurtsio estetikoaren ugaritasuna eta aniztasuna nabarmenduko da eta, besteetan, barne-kolektiboan ditugun emozioak izendatzeko baliogarria izango dela uste dugu.

Euskal Herriko Poesia Esperimentalaren Biurtekoa, 2006an Barakaldon egin ziren poesiaren Lehen Topaketen ondoriokoak dira eta 2008.etik aurrera bi urteren behin ospatuko dira.

Beraz, 2008.eko azaroan ospatuko den lehen Biurteko honek Barakaldon izango du bere egoitza nahiz eta Sestaora, Leioara (EHUra) eta Bilbora zabalduko duen ere bere egitaraua. 2010erako ordea, Portugaletera, Muzkizera eta oraindik finkatu gabe dauden beste tokietara ere zabalduko da.

I, Topaketetan hartutako eskarmentuari esker, hainbat arlo jorratuko ditu aurtengo egitarauak: 5 erakusketa, 4 mahai-inguru, liburuen laginak, bideosorkuntzezko saioak, 12 performantze, ekintzak, poesia emanaldiak eta oraindik finkatu ez diren beste ekitaldiak.

data:

2008.eko Urria-Azaroa

Parte hartuko duten Udalek:

Barakaldo: Biblioteka Nagusiko eta Clara Campoamor kultur etxeako aretoak.

Bilbao/Bilbo: Spazio Grossi, Bilbao Arte.

Sestao: Kontsrbatorioko erakustaretoa eta areto nagusia.

Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea (E.H.U.).

Actividades/ Ekitaldiak

• **Erakusketa:**

Bibioteka Nagusia (Barakaldo).

Metamorfosis Nº10 zkia.

2006.eko udazkenean, *La Unica Puerta a la Izquierda -L.U.P.I.k*, korronteen, jardueren eragileen arteko bilgunea suspertu zuen eta ezohizko erakusketa bat baino gure errealitate kulturalari eta artistikoari buruzko eztabaida sakon bat jarri zuen jendeaurrean.

Oraingoan, ***Euskal Herriko Poesia Esperimentalaren Biurtekoa - EXPOESÍA 2008***, Barakaldon ospatutako ***"I. Topaketen"***

lekukotasuna hartzen du. Horregatik, antolatzaileek

Metamorfosis aldizkariarekin eta ***L.U.P.I.*** kultur elkartearekin batera, poesia esperimentalari buruzko Deialdia egitea erabaki dute.

• **Erakusketa:**

Biblioteka Nagusia (Barakaldo).

Joan Andoni Goikoetxearen inguruan

"Goiko" Jon Andoni Goikoetxea, Barakaldoko poeta esperimentalaren ingurukoa. Erakusketa hau bikoitza izango da: Andoni Goikoetxea lana batetik, eta gonbidatutako artistena bestetik. Horrez gain, bilgune berezi bat egokituko da non poetak zuzenean idatziko duen eta bertaratutakoekin mintzatuko.

- **Erakusketa**

Biblioteca Nagusia (Barakaldo).

2008.eko Poesia Esperimentalari buruzko argitarapenak

2006.eko urrian, La Única Puerta a la Izquierda (**L.U.P.I.**)-k eraturako ekintzen artean, poesia esperimentalaen inguruan argitarapenen artxiabo bat sortu zuen eta ondorioz **“2006.eko POESIA ESPERIMENTALARI BURUZKO DOSSIERRA”**, nazioarteko 80 argitarapenetik gorako aleak jasotzen duen dibulgazio-gida gauzatu zen.

2008ko Biurteko honetan beste horrenbeste lortu nahi dugu, ahal dugun kopururik handiena jasoz.

- **Erakusketa:**

Musika Kontserbatorioa (Sestao).

Gonbidatutako Erakusketa:

Fragmentos de Entusiasmo. Antología de la poesía visual en España (1964-2006).

Biurteko bakoitzean Estatu mailan sorkuntza arlo hauetan nabarmentzen diren egitasmoei leku bat zabaldu nahi diegu, forma hauek aintzinatik gaur arte dirautelako batez ere garai esanguratsuetan (XX. mendeko hasierako Abangoardiak edota Berritzaileak, 60.eko hamarkadan) eta gainera gaur egun hauen berbizkundera agerian dagoelako.

2006an, Peñaroya-Pueblo Nuevon sortu berria zegoen Centro de Poesía Visual (C.P.V.)k utzitako erakusketa ekarri genuen. Oraingoan eta Antonio Orihuelaren komisaritzapean, *Fragmentos de Entusiasmo. Antología de la Poesía Visual en España (1964-2006)* izango dugu ikusgai.

- **Erakusketa:**

Spazio Grossi (Bilbao).

Posta-arte

Deialdia.

Gaia: gutun-azala"

- **Ekintzak eta Mahainguruak: (Bilbao).**

Poesia Ekinean.

Dada eta Futuristetatik Situazionistetara, Fluxus, arte soziologikoa, kontestuala, happening-performantzeak....

Poesia Esperimentalaren eremuan performantze poetikoa eta ekintza poetikoa izendatzen da.

Poesia Ekimenean proposamenak, ikerketa bide honetako bilguneak, eztabaidak eta elkarrizketak bultzatu nahi ditu.

- **Proiektzioak:**
Clara Campoamor (Barakaldo).

Barakaldoko Clara Campoamor kultur etxean hiru emanaldi antolatuko dira: Bata J.E. Cirlot-en jatorrizko poemetan oinarritutako Eugeni Bonet-en lanari buruzkoa; bigarrena, Nazioarteko eta Estatu maileko hautatutako hainbat egilena; hirugarrena, ekitaldien grabaketen deialdia.

- **Mahaingurua:**
(UPV-EHU), (LEIOA).

Poesia Esperimentalaren inguruan ikuspuntu eta adierazpen ezberdinen aurkezpena eta eztabaida.
Arlo ezberdinetako esperientzia zabaleko lau egilek hartuko dute parte.

Lehenengo aurre-ekitaldiak otsailaren 15etik martxoaren 15era eta, maiatzean, hitzaldiak eta argitarapenak antolatuko dira.

Bienal de Poesía Experimental de Euskadi . 2008
Euskal Herriko Poesia Esperimentalaren Bienala

**expoesía**

Asociación Cultural Literaria "La Única Puerta a la Izquierda" (L.U.P.I.)
Apartado de Correos 64, Sestao 48910, Bizkaia, España.
CIF: 0G95339149. Coordinación: Juan Jesús Sanz Teléfono: 617 596 588
Más información
www.tallerdelosentido.net LINK expoesía
expoesia01@tallerdelosentido.net